

KOMIKI BAT NOLA MARRAZTU





1. Marrazketa teknikari egokitzen zaion papera erabili behar da.

Errotulagailuekin marrazteko asmoa baduzu folio normal batekin nahikoa duzu. Pintzel batekin tindatzeko asmoa baduzu, orri lodixeagoa beharko duzu, kartulina tankerakoa. Akuairekin pintatzeko berriz, akuairelantzako paper berezia erabili. Paperaren hautaketa oso garrantzitsua da; arkatzez egindako marrazki on bat guztiz hondatu daiteke tindatzean edo kolorea ematean orria egokia ez bada.

2. Garrantzitsua da neurri egokiekin lan egitea.

Erronkan DIN-Aren proportzioetara egokitzen diren DIN-A4 eta DIN-A3 arteko lanak onartuko dira. Proportzionaltasuna topatzeko kontrako bi erpinak diagonalean zehar elkartu behar dira; orriaren ertzei perpendikularki jarrita, diagonal berean eta honen luzapenean moztzen duen orri oro honen proportzionala izango da.



3. Orriaren egitura.


Orri bakoitzeko hiru edo lau biñeta tira dituen komikian zentratuko gara. Tira bakoitzak hiru edo lau biñeta izan ditzake batz bestean. Kontuan izan biñetaren tamaina ere irakurri egiten dela eta esanahia ematen diola kontakizunari. Biñeta zenbat eta estu eta luzeagoa izan, orduan eta azkarragoa izango da eszena. Honek eragin handia du istorioa irakurtzeko moduan, eta biñetaren neurriarekin hau gaindituz, puskatuz edo ezabatuz jolas daiteke.

4. Hasiera, korapiloa eta amaiera.

Protagonistak zein diren eta istorioa non gertatzen den jakin behar dugu. Istorioko korapiloaren bitartez amaierako askaerara eramango dugu irakurlea. Bidean emandako informazioaren arabera, mezuaren eraginkortasuna guztiz aldatuko da.

5. Gidoia.

Ideiak ondorengo moduan banatu daitezke: lehenengo tira aurkezpenarentzat, bigarrena korapiloarentzat eta hirugarrena amaierarentzat. Bilatu ezazu inspiratzen zaituen zer edo zer eta hasi hortik idazten. Istorio onek pentsarazten digute, emozioak transmititzen dituzte eta pertsonak eraldatzeko boterea izan dezakete. Ideia konkretua transmititzeko intenzioarekin idatzi, esaten duzunaz ohartuz. Ez da gauza bera lagun bati idazten zaion gutuna, protesta kanta bat edo maitasun adierazpen bat.




6. Osotasunean pentsatu.



Emaitza ona izan dadin orri orekatua behar da informazio eta espazio libreak konbinatuz; txuri beltzekin orekatua edo kolore edo itzal adierazgarri batekin indartua. Baina beti ere, ondo ulertzen den istorio itxi bat kontatuko du. Har ezazu distantzia pixka bat eta begiratu orria irudi osoa bailitzan. Kontuan izan inpresio hori, irakurleak jasoko duen lehenengo informazio iturria izango dela. Ondoren, bere arreta bereganatzea lortzen baduzu, biñetetan zentratuko da, eta irakurlea ustekabean harritzen badu, posible da irakurri duena inoiz ez ahaztea.

7. Pertsonaiak, testua, onomatopeiak, lerro zinetikoak eta baliabide grafikoak.

Zu zeu izan eta marraztu konplexurik gabe. Erabili pertsonaia originalak, begiratu zure inguruan eta marraztu ikusten duzuna. Zure gertuko errealitatea da hoberen ezagutzen duzuna; erabili informazio hori kontakizun on bat sortzeko eta marrazkia bakarrik aterako da. Zure eskuzko kaligrafiak edozein ordenagailuk baino askoz ere balio artistiko gehiago du eta informazio gehiago ematen du. Kasu honetan, komikia motza izanik, kaligrafia kontrolatzea are garrantzitsuagoa da. Erabili onomatopeiak, lerro zinetikoak, eta nahi dituzun adina baliabide grafiko. Gutxienez, Whatsapp-eko emotikono adina baliabide menperatzen dituzu.



8. Izan kritikoa lanarekin.

Aholku guzti hauek puskatu, eraldatu, egokitu, birsortu eta berridatzi daitezke bila zabiltzanaren neurria. Esne kaxa edo harri baten gainean marraztu dezakezu, aldizkarietako zatiekin collageak egin edo bururatzen zaizuna! Irakurlea inspiratzeko, sorkuntza prozesua munduko gauza dibertigarriena izan behar da marrazkilariarentzat.